



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburua
Vicelehendakari Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2025ko urtarrilaren 2koa, Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren ordezkarian izendapena aldatzen duena.

2024ko azaroaren 6an jarri zen indarrean 307/2024 Dekretua, urriaren 22koa, Inklusiorako Euskal Kontseiluarena, 2024ko azaroaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua (245. zk.).

2024ko azaroaren 15ean, Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak organoaren idazkaritza izendatu zuen.

2024ko abenduaren 16an, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren ordezkariak izendatzeko agindua eman zen, 2024ko abenduaren 27an EHAA-n argitaratu zena (251 zb.).

Argitaratu ondoren, akats material bat identifikatu da, eta enpleguaren arloan eskumena duen sailaren ordezkari izango diren bi kideak izendatzeko proposamen berria egin da, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretura hobeto egokitzeko.

Dekretuaren 8.1 artikulua araberak, bokalak eta haien ordezkariak Eusko Jaurlaritzan inklusiorako-arloko eskumena duen saileko titularraren aginduz izendatuko dira.

Horregatik guztiatik, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENGOA.- 2024ko abenduaren 16ko Agindua aldatzea, Eusko Jaurlaritza ordezkatzan duten kideei dagokienez, eta honako hauek izendatzea:

Titularra	Ordezkoa
Enplegua	
Alfonso Gurpegui Ruiz, Enplegu eta Inklusioko Sailburuordea.	Sara Buesa Rodríguez, Inklusioko zuzendaria.
Francisco Pedraza Moreno, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.	María Aranzazu Martínez Tobalina, Enplegu zuzendaria.



